



BASURTUKO LEHERKETA

Egoitz Gurrutxaga errenteriarra da leherketan hildako bigarren gaztea

Atzo identifikatu zuten; 28 urte zituen, eta 1999an preso egona zen bederatzi hilabetez

Greba izan zen atzo Zaldibian, eta Seme Kutun izendatu zuen Udalak Hodei Galarraga

Egoitz Gurrutxaga Gogorza da, joan zen astelehen gauean Bilboko Basurtu auzoan izan zen leherketan hildako bigarren gaztea, atzo Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak jakinarazi zuenez. Gaztea nor zen jakin eta luzera gabe manifestazioa egin zuten Errenterian Gurrutxagaren heriotza salatzeke, eta, istiluak ere izan ziren. /6-7



ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

Atzo iluntzean Errenterian egindako manifestazioa.

ETA-REN AGIRIA

ETAk dio EAJk, EAK eta IUK «itxurazko erronka» egiten diotela Madrili

Borrokan jarraituko duela esan du, Euskal Herriak erakunde «sendo eta zilegiak izan arte» /8

ETA-REN ATENTATUA LEITZAN




LANDER FERNANDEZ ARROIABE / ARGAZKI PRESS

Jose Luis Castejon, Angel Acebes eta Miguel Sanz, Iruñeko atzoko elkarretaratzean.

Elkarretaratzeak azken atentatua gaitzesteko

Nafarroako Parlamentuak manifestaziora deitu du larunbaterako Iruñean, guardia zibilaren heriotza salatzeke

Erakundeek eta gizarte taldeek deituta elkarretaratze ugari egin ziren atzo hainbat hiriburutan, eta Nafarroako Parlamentuak manifestaziora deitu du larunbaterako Iruñean, ETAk herenegun Leitzan egindako atentatua gaitzesteko. Iruñeko elkarretaratzean «terrorista guztiek» espetxean bukatuko dutela adierazi zuen Espainiako Barne ministro Angel Acebesek. /9-10



LA CHIMENEA ALTZARIAK

Osinalde Industrialdea-USURBIL
Tel.: 943 370966

AUKERAKO ALTZARIAK

1.000 metroko erakusketa, prezio harrigarriekin. Aukera zabala tekazko, haritzezko, intxaurrezko altzari trinkoetan. Markarik garrantzitsuenetako koltxoak eta somierrak %50ean. Ehunka altzari urratu txikiekin eta baita haiek gabe ere %50ean. Izugarritzko beherapenak larruzko tresilloetan.